

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

NEKAZARITZA SAILA

129/2019 Foru Agindua, martxoaren 15ekoa. Onestea Arabako Lurralde Historikoan fruta-arbola sailak ezartzeko laguntzen 2019rako deialdia

Foru Gobernu Kontseiluaren irailaren 4ko 45/2018 Foru Dekretuaren bidez, onetsi ziren Arabako Lurralde Historikoan fruta-arbola sailak ezartzeko laguntzak arautzen dituzten oinarriak, baita 2018rako deialdia ere.

Oinarri arautzaileen 11. artikuluan xedatzen da urtero laguntza deialdia onetsiko dela, zeinean eskaerak aurkezteko epea eta tokia jasoko baitira, bai eta deialdia ebazteko gordetzen diren kredituak ere.

Beste alde batetik, 15. artikuluan xedatzen da emandako dirulaguntzen ordainketa jarduketak burutu eta gero egingo dela, ordaintzeko eskatu eta adierazitako dokumentazioa aurkeztu ondoren, eta 14.1 artikuluan, laguntza eman eta hurrengo urteko abenduaren 30era arteko gauzatze epea ezarrita dago. Horren ondorioz, deialdia onetsi eta hurrengo urtean kreditua erreserbatu behar da.

Arabako Foru Aldundiaren 2018rako gastu aurrekontu 2019ra luzatuan 2020 urtekoan kreditua duen berariazko partida bat dago, 10.000,00 euroko zenbatekoarekin, 2019. urte honetan laguntza lerro honetarako deia egiteko.

Aginduzko txostenak aztertuta, horregatik eta dagozkidan ahalmenak erabiliz, hau

XEDATZEN DUT

Lehenengoa. 2019rako onestea Arabako Lurralde Historikoan fruta-arbola sailak ezartzeko laguntzen deialdia, ondoren zehazten denaren arabera:

a) Eskaerak aurkezteko tokia eta epea: 30 egun naturaleko epean, foru agindu hau ALHAOn argitaratzen den egunaren hurrengo egunetik zenbatzen hasita, ustiategiaren kokalekuko Nekazaritzako Eskualde Bulegoan edo Nekazaritza Garapeneko Zerbitzuan. Hori guztia, urriaren 1eko 39/2015 Legeak, administrazio publikoen administrazio prozedura erkidearenak, 16.4 artikuluan ezarritakoari kalterik egin gabe. Epearen barruko azken eguna balioduna ez bada, epea hurrengo egun baliodunean bukatuko da.

Deialdi honetan, 2019ko urtarrilaren 1etik aurrera landatutako fruta-arbolak onartuko dira; ondorioz, egun horretatik aurrerako gastu egiaztagiri eta ordainagiriak onartuko dira.

b) Kreditu erreserba: 10.000,00 euro, Arabako Foru Aldundiaren 2018rako gastu aurrekontu 2019ra luzatuko 40.1.01.42.01.770.00.07 "Labore alternatiboen proiektu aitzindaria. Deialdi berria" izeneko partidaren 2020ko urtekoaren kontura.

Kreditu horrek zenbateko gehigarriekin handitu ahalko dira urriaren 19ko 11/2016 Foru Arauak, Arabako Lurralde Historikoaren dirulaguntzenak, 21.2.b) artikuluan xedatutako mugen barruan, hasieran erreserbatutako kredituaren ehuneko 100eraino, baita aurrekontu partidaren edozein zioengatik gerta daitekeen kredituaren gehikuntzagarik ere.

Bigarrena. Foru agindu hau ALHAOn argitaratzen den egunean jarriko da indarrean.

Vitoria-Gasteiz, 2019ko martxoaren 15a

Nekazaritza Saileko foru diputatua
EDUARDO AGUINACO LÓPEZ DE SUSO

Nekazaritza zuzendaria
MARÍA ASUNCIÓN QUINTANA URIARTE